

AUTONOMIA ERKIDEGOAK. PP Konstituzioa erkidegoen kaltetan ari dela erabiltzen uste dute

Elkarlan Autonomikorako legea gaitzetsi dute Ibarretxek eta Pujolek

Babes aski lortzen ez badu, legeak ez duela aurrera egingo azaldu du Posada ministroak

Erredakzioa | DONOSTIA

Espainiako Gobernuak abian jarri nahi duen Elkarlan Autonomikorako legearen aurka agertu ziren atzo, Bartzelonan, Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria eta Jordi Pujol Generalitateko presidentea. PPko gobernuaren egitasmoak sortutako kritikak bitarteko, legeak «babes aski» ez badu ez duela aurrera egingo esan zuen atzo Jesus Posada Espainiako Administrazio Publikoen ministroak, Madrilen.


Elkarlan Autonomikorako lege egitasmoa ez da «onargarria», Ibarretxeren eta Pujolen hitzetan. Izan ere, lege horrek autonomiek Europako Batasunean zuzenean parte hartzea eragotziko luke, eta autonomiek Madrilgo erabakiak aintzat hartu behar izatea ekarriko. Autonomien elkarlana zehazteko sektoreka Jardunaldi Nagusiak egitea ere aurreikusten da legean, «Espainiako Gobernuaren egitasmoak bultzatzeko lagungarri» izango liratekeenak.

Lege horrekin bukatutzat emango litzateke prozesu autonomikoa, eskumenei dagokienez autonomiek jada «goia jo» dutela esaten baitu. Pujolek atzo esan zuenez, autonomiei eman behar dizkien eskumenak ukatzen badizkio, Espainiako Gobernuak «Konstituzioaren aurkako jokaera» izan dezake.

PPren gobernuak Espainiako Konstituzioa autonomia erkidegoen kaltetan ari dela erabiltzen azaldu zuten bi agintariek. Ibarretxeren aburuz, PPk azken kongresuan Konstituzioa «aldatu» du, «Estatuaren nazio aniztasuna hautsi duelako», «nazio bakarraren kontzeptuaren mesedetan». Autonomien alorrean atzerabidea hasi du PPk, hark dioenez. Jordi Pujol ere bat dator Ibarretxerekin; PPk «Konstituzioa murrizten» jarraituz gero, autonomia erkidegoak «ito» egin ditzaketela esan zuen. Kataluniako Gobernuarenak ziren agiri batzuk entregatzeko ekitaldira joan zen Ibarretxe Bartzelonara.

Bidenabar, EAK lege egitasmoa baztertu zuen atzo. Alderdiaren hitzetan, legeak «ez ditu euskal lurralde historikoen eskubideak errespetatzen, eta ez du horien arteko elkarlana baimentzen». Legea «inposatzailer» dela dio.

AGIRIEN ENTREGA EKITALDIA



JULIAN MARTIN / EFE

Ibarretxe eta Pujol, atzo, Jaurilaritzak erbestean gordetako Generalitatearen agiriak aztertzen.

Gerra zibilean kendutako agirien eskea Madrili

Gerra zibilean atxikitako agiriak bueltatzeko eskatu zioten atzo Madrili Ibarretxek eta Pujolek. Beste agiri batzuen entrega ekitaldia baliatu zuten horretarako. Izan ere, Kataluniako Gobernuaren 1937 eta 1941 bitarteko 4.000 agiri eman zizkion atzo Ibarretxek Pujoli, EAJk erbestean gordetako agiriak hain zuzen ere.

Egun Salamancan daude gordeta Espainiako Gobernuak gerra garaian bereganatutako agiriak, eta orain arte uko egin diote entregatzeari. Agiri horiek «gerrako altxor» moduan gordetzen jarraitzea gaitzetsi zuten atzo Pujolek eta Ibarretxek. Agiriak ez bueltatzeko arrazoitzeko Madrilak «konkista eskubidea» aipatzea salatu

zuen Pujolek. Ibarretxeren hitzetan, berriz, «XXI. mendean, teknologia berriei esker agiriak munduko edozein tokitatik kontsulta daitezkeen garaian, ezin gara gerra botinez hitz egiten egon, gureak ez diren agirien jabe egiteko». Eusko Jaurilaritzaren Salamancako dokumentazioaz gain, Alcala de Henareskoa ere bueltatzeko eskatu zuen Ibarretxek, «Poliziarenak eta Kanpo Harremanetako Ministeriokoak». Herrialdeen memoriaren garrantziaz jardun zuten bi agintariek.

EAJk erbestean bere agiriekin batera gorde zituen Kataluniakoak. Lehenengo Frantzia egon ziren (Parisen), gero Ipar Euskal Herrian eta 90eko hamarkadatik aurrera Sabino Arana kultur elkargoak kudeatzen duen Euskal Aberzaletasunaren Agiritegi Historikoan egon dira gordeta. Pujolek eskerrak eman zizkion Ibarretxeri, eta agirien balioa nabarmendu zuen.

Bihar azalpenak, Senatuan

Jesus Posadak bihar azalduko ditu Senatuan egitasmoaren nondik norakoak. Haren irudiko, «elkarlana beharrezkoa, onuragarria eta komenigarria da guztiontzat», eta ez da autonomia erkidegoen aurkakoa. Kritikak «apur bat goiztiarrak» zirela esan zuen, eta legea onartuz gero, «aho batez» izan behar zuela. Hala ere, lege bat edo zenbait edota gutxienez arau batzuk itunduko direlakoan

dago Posada. Autonomien jarduna «ikuspegi espainolaren barruan» indartu behar da, dioenez.

Bide batez, Jose Maria Aznar Espainiako presidentea ere gaia hizpide izan zuen atzo, eta horrela erantzun zien Eusko Jaurilaritzaren eta Generalitatearen kritikei: «Inork ez die eskatzen autogobernu gehiago ez eskatzeko, baina arauak errespetatu egin behar dituzte». Haren arabera, aurrekoentuen oreka lortzeko beharrezkoa da

elkarlana; Espainia Europako herrialde «dezentralizatuen» dela dio, baina «finantzen oreka» Gobernuaren esku soilik dagoela. «Espainian gastatzen diren euroen erdiak baino gehiago autonomien esku daude», eta, horregatik, «ardura» izan beharko luketela uste du Aznarrek.

PSOEn ustez, berriz, Posadak proposatzen dituen neurriak «ez dira aski»; hala esan zuen herenegun Juan Fernando Lopez Aguilar sozialistak.

EA

Ideologia ezberdinen adostasuna zilegi dela erantzun dio EAK Catalani

Erredakzioa | IRUÑEA

EAK «demokrazian ideologia ezberdinen arteko akordioak» lor daitezkeela erantzun dio Alberto Catalan UPNko idazkari nagusiari. Erregionalistak herenegun «euskal nazionalisten ideologia baztertzailer» eta helburu anexionistak gorabehera haiekin elkarnean aritzea leporatu zion PSNri.

Fermin Ziaurritz EAKo Batzorde Eragileko bozeramaileak Catalanen hitzak salatu zituen, atzo, prentsa oharrean. Catalani gogoratu dio «demokrazian ideologia ezberdina duten alderdien artean gobernu akordioak edo adostasun jakinak» lor daitezkeela. EAren iduriko, Catalanen hitzek «Nafarroako eskuiaren aurpegiatik atzerakoiena eta intolerantee» erakusten dute. Ziaurritzek uste du UPN «urduri» dagoela, «Nafarroko gizartean, ekonomian eta politikan duen boterea eta kontrola galtzeko beldur» delako.

Ziaurritzen irudiko euskal nazionalismoaren inguruan «gezur izuak» eragiten ari da UPN. Hala, nazionalisten aurka ekiteko erabili duten «nafartasunaren defentsaren alde» erregionalistek zer eskaintzen duten galdetu du Ziaurritzek. «Kide duen PPren menpe zaudete. Eta kide hori Nafarroa eta EAEko eskubide historikoak eta eskumenak gauzatzeko bidea mugatu nahi ditu».

Ziaurritzek Catalani galdetu dio «ez ote den Nafarroarekiko leialtasun gutxiagokoa Madril gehiengo osoa duen Espainiako nazionalismo atzerakoiena ordezkatzan duen gobernu bati men egiten dionarena, Nafarroako izaera plurala eta zabala azaltzen duen alderdi askotako gobernuarena baino». Izan ere, Ziaurritzen aburuz, euskal nazionalistek eta oposizioko beste alderdiek «nafarren arteko bizikidetzaren lehentasuntzat dute, baina UPNk, berriz, kanpokoan interesak aurretik jartzen ditu».